

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Olo kontseilariak kanpoan bizi diren nafarrek Foru Komunitatearentzat duten balioa nabarmendu du

Lehen Next Topaketan aurkeztu dute Nafarroako gizarteak bere diasporarekiko loturei eusteko estrategiaren zirriborroa, eta, bertan, ehun bat lagun bildu dira

Osteguna, 2018.eko abenduak 27

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok Nafarroatik kanpo bizi diren herritarrek dakarten aktiboa nabarmendu du. Horrela adierazi du Nafarroatik kanpo bizi diren eta ostegun honetan I. Next Topaketan bildu diren ehun bat lagunen aurrean. Estrategia hori Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak bultzatzen du, kanpoan bizi diren nafarrek komunikatzeko bideei eusteko eta bide horiek sustatzeko helburuarekin.



Talde argazkia, Olo kontseilaria topaketako parte hartzaielekin

Jardunaldiari hasiera emateko, Komunikazio eta Harreman Instituzionaletako zuzendari nagusia den Pello Pellejerok sarrera egin du, eta, bertan, aurrez aurre edo bideoen bitartez, ahotsa eman zaie beste herrialde edo autonomia erkidego batean ezartzera bultzatu edo behartu dituzten banako erabakiekin loturiko alderdiak azaldu dituzten nafarrei.

Era horretan, kasu honetan, Euskadi, Madril, Alemania, Arabia Saudí, Brasil, Txina (Hong Kong), Danimarka, Estatu Batuak, Finlandia, Frantzia, Maroko, Erresuma Batua eta Errusia bezalako lekuetatik etorritako nafarrak lehen aldiz bildu dira jatorrizko lekuarekin bi norabidetan komunikatzeko oinarriak finkatzeko asmoarekin; hots, Nafarroako Gobernuarekin nahiz Foru Komunitatean kokaturiko ezagutza-zentroekin edo produkzio-ehunarekin. Horretarako, Exekutiboa duela urtebete baino gehiago hasi zen lanean azterketa bat eginez, zeuden datuak aztertu eta ekarpenak jasotzeko prozesua irekiaz, Next Estrategiaren zirriborroa egin aurretik.

Ana Olloren hitzetan, “prozesu honetan ezinbestekoa zen herritar hauek nolakoak diren jakitea, nolakoak zareten zuek”. Jasotako 294 proposamen eta ekarpenetatik, 171 kanpoan bizi diren herritarrenak dira, 30 haien senitartekoenak eta 93 agente giltzarrienak. Guztiei kontsulta egin zaie estrategia lantzearen.

Next Estrategiaren zirriborroan, kontseilariak amaieran azaldu duenez, jarduteko hiru ardatz definitzen dira: bata komunikazioa / konexioa, bestea eustea / itzultzea, eta hirugarrena lankidetzaren aktiboa, bakoitza jarduteko zenbait proposamenarekin.

Pertsona horiek borondatez edo lanak eskatuta bizi izan duten errealitateak ez gaitu “axolagabe utzi behar gure ingurune osoan gertatutako fenomeno izateagatik”, adierazi du Ollo kontseilariak. “Alderantziz, –jarraitu du-, gure ustez, kanpoan bizi diren herritarrek balio itzela dute Nafarroarentzat, eta jakin badakigu horiekiko harremana asko hobetu beharra daukagula, interesen bat-egiteak aktibatuz kanpoan bizi diren gure herritarrek Nafarroarekin lotzeko, itzultzeko prest izan ala ez”, baieztatu du.

Mantentzen diren loturak

Errealitate hori ezagutzera ematearren, kontseilariak ondorengo gogoratu du: “Gobernuak giro instituzionala, enpresa-mailakoa, akademikoa eta soziala sortu nahi du, pertsona horiek kontuan izateko, eta Nafarroak kanpoko herritarrekin dituen loturak estutzeko erremintak sustatu”.

Topaketan, halaber, Nafar Lansareko, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea, Paz Fernández, “Langabeziaren egoera Nafarroan: errealitatea eta joerak” gaiaz aritu da, eta NavarraCapital.es-eko Eva Perujanizek “Ekonomia, enpresa eta lan-merkatua Nafarroan” hitzaldia aurkeztu du.

Era berean, bertan bildu dira Nafarroako enpresetako ordezkariak, bi unibertsitatetakoak, Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroara itzuli diren pertsonak. Horien guztien artean mahai-ingurua egin dute kanpoan dauden nafarrekin konektatzearen errealitatea aztertzeko.